

**BIZITEGI ERAIKINA**  
C MAILA

**SANTA KATALINA 4**



Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde, 1881

**Deskribapena**

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, lau goi oin eta oin mantsardatu bat dituena; guztiak jatorrizkoak. Harlanduzko fatxada. Konposizio simetrikoa, erdiko baoen ordenak markatua. Banako begiratoki zurezkoak, ezker baoan 1890ean erantsitakoak. 1956an eraldatutako behe oina. Proiektu komuna Santa Katalina 2rekin eta 3rekin.

**Babes erregimena**

1.- Erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: 5. goi oin mantsardatua.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.